

III muina II

MUINA

KULTURA-JARDUEREN
POLTSA

OINARRIAK

Euskaraz **Muina** zerbaiten zatirik barnekoenari esaten zaio. Zentzu horretan, Izaskun Arrue Kulturgunearen bizkarrezur-muina kultur programazioaren parte diren sortzaileek eta talde ezberdinen egitasmoek osatzen dute. Hori dela eta, **kultura-jardueraren bat gauzatu nahi duen Arabako herritar oro**rentzat zuzendutako proposamenen poltza zabaltzea da deialdi honen xedea. Muina deialdiaren helburua herritarrek buruan dituzten kultur ekimen ezberdinak gauzatzeko aukera ematea da, eta bide batez, programatzaileen eta sortzaileen artean aldebikoa den harremanari heltzea.

1.- XEDEA:

Muina deialdiaren bigarren edizio honetan, 2026an zehar Izaskun Arrue Kulturgunean garatzeko diziplina desberdinetako kultura-jardueren proposamenak jasoko dira. Guztira, jasotako proposamenen artean, 7 aukeratuko dira: hiru ikuskizun, hitzaldi bat, ikus-entzunezko proiektzio bat, ikastaro bat eta lantegi bat. Jarduera motaren arabera, saridunak jasoko duen ordainsariaren kopurua desberdina izango da. Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 31ra arte egongo da zabalik.

2.- NOR AURKEZ DAITEKE?:

- Deialdi honetara Euskal Herrian jaio, bizi edo lan egiten duen edonork hartu ahalko du parte, **adinez nagusia** bada, eta **euskaraz egiteko gaitasuna** erakusten badu.
- Pertsona fisikoak **banaka zein taldeka** aurkeztu ahalko dira.

3.- JARDUERA MOTAK ETA AURREKONTUA:

Deialdi honetan aintzat hartzen diren jarduera motak ondorengo koadroan zehazten dira, jarduera-mota bakoitzerako zuzendutako diru kopuruarekin batera. Kategoria bakoitzean sari bakarra emango da. Sari horren bidez, jarduera hori IAKn programatzeko katxeak ordainduko dira:

Jarduera mota	Aurrekontua
Ikuskizuna: kontzertuak	800€ (BEZ barne)
Ikuskizuna: antzezlanak	800€ (BEZ barne)
Ikuskizuna: bertso-saioak, bakarrizketak, arte biziak, zirkua...	800€ (BEZ barne)
Ikus-entzunezko proiektzioa: zinema, dokumentalak, film laburrak...	250€ (BEZ barne)
Hitzaldia: mahai-inguruak, aurkezpenak, hitzaldiak, solasaldia...	250€ (BEZ barne)
Ikastaroa (gutxienez 3 saio)	800€ (BEZ barne)
Lantegia (saio bat)	250€ (BEZ barne)

4.- BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK:

- Kategoria bakoitzeko irabazleak, hautatua izan dela jakinarazten zaion momentutik, 10 lanegunetan **akordio bat sinatuko** du Izaskun Arrue Kulturguneko arduradunekin, jarduera garatu eta bere saria jaso ahal izateko.
- Akordio horren atalen artean, besteak beste, sariaren ordainketari dagozkion xehetasunak (besteak beste, faktura baten kontra edota sari-ordainketa bezala, jardueraren kategoriaren arabera) agertuko dira. Proiektuaren egileek tokiko ogasunak ezartzen dituen irizpide eta arauak bete beharko dituzte.
- Jarduera formatu bakoitzak aurrekontu bat dauka eta proposatutako **egitasmoa burututakoan, zenbateko hori ordainduko zaio.**
- Hautatutako proposamenen egileek aurkeztutako egitasmoaren egikaritze prozesuan egiten diren aldaketak eta moldaketak Izaskun Arrue Kulturguneko **arduradunekin adostuko dituzte.**

- Irabazleek Izaskun Arrue Kulturguneko **komunikazio lantaldetik eratorritako irizpideak** beteko dituzte, eta ekitaldiak komunikazio plangintzaren parte izango dira.
- Egitasmoaren gauzatze bilakaeran erabiliko den **transmisio hizkuntza euskara izango da.**
- Programatutako jardueraren ordainketa **jarduera burutu ostean** egingo da.

5.- IZEN-EMATEA:

Izen-ematea **uztailaren 31ra arte (barne)** egongo da irekia.

Inprimaki honen bidez osatu beharko dira behean agertzen diren atalak.

Pertsona edo talde bakoitzak proposamen bat baino gehiago aurkeztu ahalko du, baina horietako bakarra aukeratuko da. Bi proposamen bidali nahi izanez gero, inprimakia bitan osatu beharko da.

Proposamen bakoitza bere inprimakia betez bidali beharko da, eta honako datuak eman beharko dira:

- **Eskatzailearen datuak:** izen-abizenak, jaioteguna, jaioterria, ohiko bizilekua eta harremanetarako telefonoa.
 - Taldeen kasuan parte-hartzaile guztien datuak beteko dira, nahiz eta pertsona bakarrak hartuko duen gainontzeko taldekideen ordezkaritza formalaren izaera.
- **Egitasmoaren izenburua**
- **Hautatutako formatua:** proposamena formatu hauetako batera egokituko da:
 - Ikuskizuna: kontzertua
 - Ikuskizuna: antzezlanak
 - Ikuskizuna: bestelako arte-biziak
 - Ikus-entzunezko proiektzioa
 - Hitzaldia
 - Ikastaroa (gutxienez 3 saio)
 - Lantegia (saio bat)
- **Egitasmoaren deskribapen laburra:** 250 hitz inguru.
- **Aurkeztutako egitasmoa ulertzeko lagungarriak diren eranskinak:** irudiak, bideoak, audioak, zirriborroak, gidoiak, diskoak edo dena delakoa...
- **Ikastaro bat egiteko proposamena bidaltzen dutenen kasuan,** saioz saioko programazioaren laburpen bat erantsi beharko dute.

6.- BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA EPAIMAHAI:

Kategoria bakoitzeko irabazlea, arloko profesionalen osatutako epaimahai batek erabakiko du.

Jasotako proposamen guztiak, baloratu eta puntuatuko dira, irabazle bat aukeratzeko. Guztira, 100 puntu emango dira, jarraian zehaztutako irizpideen arabera bananduta:

- **Proposamenaren kalitatea eta euskal kultur ekoizpenaren esparruan ekarpen berritzaileak egiteko gaitasuna (30 PUNTU)**
 - Proposamenaren kalitate artistikoa (15 PUNTU)
 - Berrikuntza metodologiko eta formala (8 PUNTU)
 - Orainean kokatzen diren auziak zeharkatuta egotea (6 PUNTU)
- **Egitasmoaren bideragarritasuna (30 PUNTU)**
 - Proiektuaren prestaketa zehaztuta egotea (12 PUNTU)
 - Baliabideak eta beharrak zehaztea (12 PUNTU)
 - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, IAKko baliabideekin (6 PUNTU). IAKko rider teknikoa interesatu guztien eskura dago.
- **Proposatutakoa Gasteizko euskalgintzan eta kulturgintzan identifikatutako hutsuneetan txertatzea, eta esparru hori aberastea (20 PUNTU)**
- **Jarduera honen publikoa, edozein kolektibori eta interes-talderi zuzenduta egongo den ondo identifikatuta egotea. Adibidez: familiak, gazteak, ikasleak, publiko guztiak, etabar. (10 PUNTU)**
- **Aniztasunaren eta berdintasunaren ardatzak zeharkatuta egotea eta kultura-jarduera horrek espazio seguru bat sortu dezan (10 PUNTU)**

Irizpide hauetaz gain, hurrengo atalean azaldu bezala, epaimahaiak kontuan izango du proposatutako kultur jardueraren bateragarritasuna IAKko helburuekin eta lan ildo nagusiekin.

Izaskun Arrue Kulturaguneak eskubidea izango du edozein kategoriatako jarduerarik ez programatzeko, baldin eta epaimahaiak ebazten badu, kategoria horretan aurkeztutako proposamen guztiek ez dutela gutxieneko kalitaterik betetzen. Era berean, horrela gertatuko balitz, Izaskun Arrue Kulturaguneak, jarduera horiek beste kategoria batzuetako jarduerekin ordezkatzeko eskubidea izango luke.

Oro har, epaimahaiak deialdi honetako oinarriak interpretatzeko ahalmena izango du.

7.- IZASKUN ARRUE KULTURAGUNEA. PROIKTUAREN LAN ILDO NAGUSIAK

Proposatutako kultur jarduerak lan ildo nagusi eta helburu hauek kontuan hartuko dituela baloratuko da.

- **SORTU:** Kultura-sorkuntza euskaldunean parte direnei edo horra hurbildu nahi dutenei lagunduko zaie (sorkuntza prozesuaren edozein fasetan daudelarik); beren sorkuntza sustatuko da, eta prozesuetan bidelagun izango... langintza horretan egitea eta eragitea bilatuko da.
- **ERAKUTSI:** Euskal Herri osoan sortzen diren kultura-proposamenen erakusleho da Izaskun Arrue Kulturagunea, eta euskal sortzaileentzako erreferentziazko gune bilakatuko da. Bereziki, ekintza positiboko neurriak jarriko dira abian, gure gizartean generoagatik dauden desberdintasunak ezabatzeko.
- **IKASI:** Prestakuntza osoa eta partekatua, irekia eta iraunkorra. Sorkuntzarako prestatu eta konfiantza emateaz gain, hizkuntzaren prozesuak hobeto ulertzeko aukera emango da eta genero ikuspegia aintzat hartuko da.

- **HAUSNARTU:** Euskal kulturaren sustapenaren inguruan, eta honek euskararen erabileran eta biziberritzean izan dezakeen eragina aztertzeko, eragile ezberdinak elkartu eta hausnarketa kolektiboak egingo dira.
- **HAZI:** Kultura-sorkuntzan, programazioan eta antolakuntzan aurrera egin nahi dutenei hazteko aukera ezberdinak emango zaizkie; bide horretan laguntzea eta lanabesak eskaintzea ezinbestekoa izango da.
- **BIZI:** Hizkuntza batean bizitzeko eta bere kulturaren parte izateko, jarduera eta esperientzia gozagarriak eduki behar direnez, ondo pasatzeko ekintza anitz eta zerbitzu ugari eskainiko da.

8.- LEGE-OHARRAK:

Hemen irakurri ditzakezu

9.- INFORMAZIOA ETA HARREMANA:

Deialdiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko jar zaitez harremanetan kultura@lazarraga.eus helbidearen bitartez.